

MUk eta Gipuzkoako Bazkondeak bat egin dute, Arrasaten Bazkondearen ordezkari bat jarri eta horren bidez enpresa-ehuna sustatzeko

2008/03/12

Arrasate, 2008ko martxoaren 11. Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak lankidetzan estuan dihardute duela bost urtetik hona; izan ere, bi erakundeok alor jakin berberetan eta hainbat ezaguera-eremutan hartzen dute esku, esaterako, enpresa-alorrean. Interes bateratu horiek harreman emankorra eta positiboa ekarri dute. Harreman hori 2003an hasi zen, bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmen baten bidez, eta gaurdaino iraun du.

Gaur, lankidetzan-esparru hori handitu eta aberastu egin da, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean Gipuzkoako Bazkondearen ordezkari bat zabaltzearekin batera. Mondragon Unibertsitatearen eta Garaia Berrikuntza Gunean jarduteko ingurune geografikoko enpresa eta erakundeengana hurbildu nahi du Gipuzkoako Bazkondeak ekimen honekin. Mondragon Unibertsitateak, berriz, Bazkondearen zerbitzu, proiektu eta prestakuntza-programei buruzko informazioa helarazi nahi die ikasleei. Azkenik, Garaia Berrikuntza Guneak proiektu hau aurrera eramateko beharrezko espazio fisikoa eman du. Hiru erakundeek izenpetutako hitzarmenaren helburuak hauek dira:

- Enpresa-sorkuntzako aukerei buruzko informazio-zerbitzu bat martxan jartzea Mondragon Unibertsitateko ikasleentzat, eta unibertsitate-esparruan enpresa-ekimena sustatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo estatuko nahiz Europako beste erakunde batzuen enpresentzako laguntza-programen berri ematea, ingurune hurbiletik.
- Prestakuntza-programetan laguntzea. Horretarako, aldi-aldi bilduko den lan-batzorde bat sortuko da, Donostian Mondragon Unibertsitateak eta Arrasaten Gipuzkoako Bazkondeak eman beharrezko prestakuntza-programak diseinatzeko.
- Ikasketa amaierako nazioarteko proiektuetarako diru-laguntzen programa bat diseinatzea. Helburua diru-laguntzen programa bat martxan jartzea da, hain zuzen, unibertsitateko ikasleek ikasketa amaierako proiektuak Gipuzkoako enpresen atzerriko filialetan egiteko diru-laguntzen programa bat.
- Atzerriko teknikariak prestatzeko proiektuak diseinatzea. Proiektu horretan, enpresek teknikari gaituez duten beharra identifikatuko duen ekimen bat elkarlanean diseinatu eta martxan jarriko da, ondoren, langile horiek aurkitzeko herrialdeak identifikatzeko eta jatorri- nahiz xede-herrialdeetan prestakuntza-programak antolatuzeko.
- Zonaldeko enpresei jatorri-ziurtagiriak eta ziurtagiri digitalak ematea.

Bazkondeko Arrasateko ordezkari bat berria apiriletik aurrera hasiko da erabat funtzionatzen.

